



ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

20011ko abenduaren 15a – 2012ko abenduaren 14a

Itziar Etxebarria Bilbao

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1.-Lan handiko urte baten nondik norakoak	3
Hasiera bateko azpiegitura-arazoak	3
Lehenengo kasuak	4
Zerbitzua gaur egun	4
2.-Urte honetan aztertutako gai eta arazoak	5
3.-Beste jarduera batzuk	11
Aholku Batzordea eratzea eta abian jartzea	11
Beste defendatzaile unibertsitarioekin eginiko bilerak eta ekimen bateratuak	11
Jazarpenaren arloko prebentziorako eta kexak ebazteko akordioaren funtzionamendua aztertzea, eta Batzorde Arbitrala martxan jartzea	12
Ikasleen ordezkariekin eginiko bilerak	13
Erakundearen webgunea argitaratzea eta zerbitzuari buruzko informazio zabalagoa eskaintzea	13
Erakundearen Arautegiaren prestakuntza	13
Prestakuntza	14
4.- Unibertsitateko kideen eta Erakundearen arteko lankidetzak	14
5.- Konpondu beharreko zenbait arazo	15
Unibertsitateko agintarien erantzunik eza	15
Unibertsitateko agintariak erabakimenik eza	15
Zehapenak jartzeko uzkur agertzea	16
6.- Txosten ekonomikoa	16
ERANSKINA: Bideratutako aztergaiak	18

Sarrera

Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz, Unibertsitateko Klaustroak Aldezle aukeratu ninduen 2011ko abenduaren 15ean.

Ordura arte gure unibertsitatean ez zegoen irudi hori, eta, beraz, ibilbide honetan neukan zeregin nagusia zen erakundea martxan jartzea eta gero eta indartsuagoa egitea, betiere, aurre eginez, ahalik eta egokien, heltzen zihoazen arazo eta gaiei.

Igaro da urtebete, eta uste dut errealitate bihurtuta dagoela Aldezlearen erakundea, oraindik bide luzea dagoen arren egiteke guztiz sendotu arte eta, batez ere, unibertsitatean errotu egon eta baliabide baliotsua eta ondo balioetsitakoa izan arte.

Ondoren, lehenik, erakundea martxan jartzerakoan izandako unerik eta punturik garrantzitsuenak azalduko dizkizuet, labur bada ere. Bigarrenik, oso labur, urte honetan aztertutako gaiak azalduko ditut, nire ustez garrantzitsuenak izan direnak azpimarratuta. Hirugarrenik, erakundeak egindako beste jarduera garrantzitsu batzuk aipatuko ditut. Laugarrenik, unibertsitateko kideek erakunde honekiko izandako jarreraren berri emango dut. Bosgarrenik, urte honetan aldele zereginak betetzean ikusi ditudan zenbait arazori buruzko hausnarketa egingo dut, etorkizunean gauzak hobetzeko bide izan dadin. Eta, azkenik, txosten ekonomiko laburbildua aurkeztuko dut.

1.- Lan handiko urte baten nondik norakoak

Hasiera bateko azpiegitura-arazoak

Hasiera batean uste baino oztopo gehiago izan nituen abiatzeko. Ilusio handiarekin hasi nintzen, baina, luze gabe, ezusteko handia izan nuen. Urtarrilaren bukaera aldera arte ez nuen laguntza handirik izan inguruan: behin eta berriro egin behar izan nuen eskaria telefono-luzapena lortzeko, posta elektronikoko helbidea eskuratzeko, ordenagailua instalatuta izateko... eta aginduta nituen bi plazak lortzeko. Urtarrilaren erdi inguruan, Koordinazioko errektoreordeak, Juanjo Unzilla jaunak, jakinarazi zidan aurrerantzean bera izango zela nire traba horiek gainditzeko bitartekaria. Geroztik, egoerak hobera egin zuen, baina hala ere, hasiera batean, oso astiro.

Urtarrilaren 26an, izendapena izan nuenetik hilabete pasatxora, idazkari baten laguntza izateko aukera eskaini zidaten, nire zerbitzua dagoen zentroko administratzailearekin idazkaria partekaturik, harik eta administrazio laguntzailearen plaza, Aldezlearen erakundekoa, bete arte.

Plaza hori betetzeko prozedura zaildu egin zen abenduaren 30eko 20/2011 Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartu zenean, eta, ondorioz hainbat bilera egin behar izan nituen; horrek neke handia eragin zidan, bai eta zenbait gorabehera errektore-taldearekin ere. Gorabehera haiek laster gainditu ziren, baina hura ez zen une atsegina izan, zeren orduan nahiago izango bainuen ezker ona adieraztea nigan jarritako konfiantzagatik.

Azkenik, maiatzaren 28an, izendapena egin zenetik bost hilabete eta erdi igarota, Ana Saralegi Senperena andrea (administrazio-laguntzailea) eta M^a Teresa Estévez Vieira andrea (teknikari legelaria) hasi ziren nirekin lanean. Ordutik aurrera, gauzak nabarmen hobetu ziren.

Lehenengo kasuak

Hasiera bateko arazo bakarrak ez ziren azpiegiturakoak izan; izan ere, zerbitzura heldutako kasuak ere ez ziren bideratzeko errazak izan.

Zenbait kasu beste unibertsitate batzuetako defendatzaile unibertsitarioek izaten dituztenen antzekoak ziren. Baina laster heldu ziren aspalditik bideratu gabe zeudenak, iraganeko kasu zailak, erantzun egokirik izan ez zutenak eta oraindik irekita zeudenak; horietako batzuk, gainera, oso enkistatuta zeuden.

Apurka-apurka, kasurik errazenak konpondu ahala, ordena pixka bat jarri ahal izan nuen, nahiz eta zenbait kasu arazo objektibo oso handiak zituzten, eta, ondorioz, batere konponbide errazik ez zuten. Gauzak horrela, kasu horietako batzuk zenbait hilabetetan izan ditut eskuartean, eta duela gutxi arte ezin izan ditut konpondu (hobeto esanda, ahalik eta ondoen saiatu naiz konpontzen, baina beti zalantzekin).

Begi-bistakoa denez, edozein unetan ager daiteke kasu zailen bat. Nolanahi dela, badirudi hasi garela bideratzen oso denbora luzean konpondu gabe egondako kasu korapilatsuenak, eta gaur egun heltzen zaizkigun kasu berriak “normalagoak” direla.

Zerbitzua gaur egun

Normalizat har daitezkeen kasuak iristeaz batera, beste aldaketa nabarmen bat izan da: gaur egun lantalde bat daukat lanerako; horrela, laguntza ona dut konpondu beharreko kasuen gainean hitz egin eta konponbideak aurkitzeko.


Administrazio-laguntzailea eta teknikari legelaria laguntza handia dira bakoitzak bere arloan. Izan ere, giza taldea osatzen dugu, eta horrela arazoak ikuspegi desberdinetatik aztertzeko aukera daukagu. Gainera, oso garrantzitsua dena, oso lagungarri dira batzuetan hartu beharreko erabaki gogorrek dakarten zama latza arintzeko; zama arintzeko laguntza hori legelari batek kasu oso saietan ematen duena bezain garrantzitsua da.

Horrez gain, udaz geroztik, eskari gutxiago izan ditugu eta ez dira hain kasu konplikatuak izan; horrek bulegoa hobeto antolatzeko aukera eman digu, lanaren martxa hartu ahal izateko, eta beste gai batzuk lantzeko parada ere izan dugu (arautegia egin, jazarpenari buruzko protokoloa gainbegiratu...). Gure erakunde honek egunean-egunean arazo berriei aurre egin behar dielako izango ez balitz, nolabaiteko errutinan sartu garela esan ahalko genuke, zorionez.


2.- Urte honetan aztertutako gai eta arazoak

Atal honetan, erakundeaz aztertutako gaietako zenbait estatistika emango ditut, ezaugarriak garrantzitsuenak azpimarratuta. **ERANSKINEA**n jasotako zerrendan zehaztuta daude aztergai guztiak.


Urtean zehar 97 gai aztertu ditugu zerbitzuan (gaur egun, ehundik gora dira), tartean kexak, galderak eta bitartekari-lanak egiteko eskariak izanik. Horietatik, 15 euskaraz aurkeztu ziren eta 82, gaztelaniaz (ikus 1. grafikoa). Kopuru horiek gorabehera, eskari-egileekin izandako elkarrizketetan eta bulegora laguntza eske etorri direnekin izandako harremanetan, euskararen erabilera askoz zabalagoa izan da.



Pertsona batzuek gai bat baino gehiago aurkeztu dute, eta arazo batzuk taldean aurkeztu dituzte. Horrela, bada, 86 lagun etorri dira laguntza eske. Horietatik 55 gizonetakoak izan dira, eta 31, emakumetakoak. Ondoko grafikoen adierazita daude kopuru horiek ehunekotan, bai eta UPV/EHUn sexuaren arabera dagoen banaketa, hartara bi datuak konparatu ahal izateko (2. eta 3. grafikoa).



Taldeen arabera: irakasle eta ikertzaileek 40 gai aurkeztu dituzte; ikasleek, 33; eta AZPkoek, 11 (4. eta 5. grafikoak). Beste 13 gai “beste batzuk” multzoan sartu ditugu, eta ez daude jasota grafikoetan; izan ere, arazoa unibertsitatearekin lotuta zegoen arren (gehienak plazei buruzkoak ziren), unibertsitatetik kanpoko norbaitek egindakoa zen.




4. grafikoko ehunekoak deigarriak dira, eta beste unibertsitate batzuekin alderatuta, oso desberdinak, horietan ikasleenak izaten baitira gehienak. Gurean, AZPkoek eta irakasleek aurkeztutako arazoak uste baino gehiago izan dira. Bestalde, oro har, irakasleenak izan dira arazorik korapilatsuenak, eta horietan izan du zerbitzuak lanik handiena, hots, AZPkoen eta ikasleen arazoak aztertzeko baino lan handiagoa.


Datuok era askotara interpreta daitezke. Esate baterako, kontsideraturik Irakasleen Errektoreordetzan ari den langile kopurua, baliteke errektoreordetza horrek gaitasun nahikoa ez izatea arazoei erantzun egokia emateko unean-unean, batez ere, kontuan izanda irakasleen arloko arazo batzuk larriak izan direla eta konponbide errazik gabeak. Datuok, baina, izan dezakete irakurketa positiboagorik. Ikasleek arazo gutxi aurkeztu izanaren arrazoia izan daiteke, adibidez, gure unibertsitateak ikasleen arloko araudi oso zehatzak eta garantistak dituela, eta ikasleen kontseiluek lan handia egiten dutela.

Edozelan ere, ikasleen taldean nabarmentzekoa da arazo edo aztergai asko graduondoko ikasleenak izatea. Izan ere, ikasleen taldeko 25 aztergai graduiko ikasleenak izan dira eta 8, graduondokoenak (6. eta 7. grafikoak). Graduondoko Ikasketetakoek, beraz, kontuan izan beharko lukete datu hori.

6. grafikoa: Gradu eta graduondoko aztergaiak




7. grafikoa: Gradu eta graduondoko ikasleen banaketa UPV/EHUn




Guztira azterturiko 97 aztergairen arteko 55 Bizkaiko Campusetik iritsi dira, 19, Gipuzkoako Campusetik eta 10, Arabako Campusetik (esan bezala, 13 aztergai UPV/EHUtik kanpoko pertsonen egindakoak izan dira). Ikusi 8. eta 9. grafikoak.

8. grafikoa: Aztergaien banaketa campusaren arabera





9. grafikoa: Campusen banaketa UPV/EHUn



Ondoko taulan zehaztuta dago zein ikastegi eta zerbitzuek egin dioten eskariren bat Aldezleari.

Ikastegia/Zerbitzua	Aztergai kop.	Pertsona kop.
Arkitekturarako GET	4	4
Arte Ederren F	1	1
Bilboko Enpresa Ikasketen UE	3	3
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoa	3	3
Bilboko Ingeniaritza GET	7	7
Bilboko Irakasleen UE	5	5
Donostiako Enpresa Ikasketen UE	1	1
Donostiako Irakasleen UE	1	1
Donostiako UE Politeknikoa	1	1
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1	1
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F	1	1
Errektoregoa	1	1
Farmazia F	2	2
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	1
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F	6	8
Ikasleen kontseiluak	2	1
IKT Gerenteordetza	3	3
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F	3	3
Lan Harremanen UE	1	1
Letren F	2	2
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	4	4
Medikuntza eta Odontologiaren F	13	12
Nautika eta Itsasontzi-makineria GET	1	1
Psikologia F	5	6
Zientzia eta Teknologia F	3	3
Zuzenbide F	6	5
Beste batzuk	15	5
Guztira	97	86

Aurkeztutako aztergaiak honelaxe sailka daitezke bakoitzaren izaera kontuan hartuta: 13 galderak izan dira; 72, kexak; 5, bitartekaritzarako eskariak. Horiexek dira, hain zuzen ere, Defendatzaileen erakundeetan landu beharreko gaiak. Gure unibertsitatearen kasuan, aparteko kategoria bat ere badago: jazarpena; izan ere, jazarpena prebenitzeko eta jazarpen-kexak konpontzeko gauegun indarrean dagoen akordioaren arabera, Aldezleari dagokio arlo horretako arazoetan parte hartzea. Guztira, 7 jazarpen-kexa hartu ditugu (ikus 10. eta 11. grafikoak).



Galderak edo kontsultak ez ziren aztergaiak alde batera utzita, hau da, esku hartzeko egindako 84 eskarietatik (kexak, bitartekaritza edo jazarpena), 26 ez ziren onartu zenbait arrazoiengatik. Zehatzago esanik, 15 ez ziren onartu ohiko bidea agortu ez zutelako (gainera, ez ziren urgenteak), 3 eskarik arrazoizko oinarririk ez zutelako, 3 idatzik eskari zehatzik egiten ez zutelako, 3 Aldezlearen jarduera-eremutik kanpo zeudelako, 1 diziplina-espedientea ebazteke zegoelako eta 1 anonimoa zelako. Onartutako 58 eskarietatik 18 ezetsi egin ziren, azterketa zehatzago baten ondoren arrazoirik ez zutela erabaki zelako.

Laburbilduz, 84 eskarietatik 40tan baino ez zen uste izan Adezleak parte hartu behar zuenik, eskatutakoaren alde egiteko.

Horrek adierazten du partehartze-eskarien erdietan ez zela bidezkoa eskatutakoa (hori oso ehuneko handia da). Eta, hain zuzen ere, horixe azpimarratu nahi dut; izan ere, azkenik ezetsi egin ziren eskariak (baita onartu ez zirenetako askok ere) lan handia ekarri zuten horiei buruzko erabakia hartu arte, eta lan hori onartutako eta bideratutako partehartze-eskariak emandako lanaren parekoa izan zen edo are handiagoa.

Oinarrizko gai edo arazoen artetik, ondokoak azpimarratuko nituzke:

- 1) Estomatologia Saileko hainbat kasu, duela urte asko sortutako arazoekin lotutakoak. Egoera aztertu ondoren, saila banatzeko proposamena egin nion errektoreari, eta banaketa egin bitartean, berak sailean partehartzea.

Errektoreak bi aholkuak onartu zituen. Saila banatzea ez zen erraza izan, baina bi alderdiak alde agertu ziren eta, azkenik, onartu egin zen Gobernu Kontseiluan, abenduaren 20ko bileran.

- 2) Beste kasu bat, beste sail batean, hainbat arazo korapilatsuz (jazarpen arloko bi kexa; 5 kide, arrisku psikosozialekin ebalatuak; errektoreari hainbat errekurtsio; epaitegietan zenbait salaketa...). Hasiera batean, eskaria errektoreak berak egin zion erakunde honi, baina errektorearen eskariz Aldezleak jardun ezin duenez, azkenean sailak berak aurkeztu zuen eskaria.

Saileko kideekin nire txostenaren zirriborroa aurkezteko egin nuen bileran, bertaratutako kideetako batek zeregin-ataza hori "bonba" bat zela esan zidan eta, agian, ez nukeela neure gain hartu beharko. Hala ere, garai hartan, kargua hartu berritan, pentsatu nuen ataza hura egin ezean baten batek pentsa zezakeela nire eginkizunei iheska nenbilela aurreneko oztopoarekin topo eginda; eta, lanaren tamainaz eta konplexutasunaz jabetuta egon arren, neure gain hartu nuen. Ziurrenik hura ez zen erakunde jaio berri batentzako lana, are gutxiago gutxieneko talde teknikorik ere ez zeukanean. Hartzen nuen erabakia hartzen nuela, erratzeko aukerak, eta, batez ere, kritikak jasotzekoak, handiegiak ziren erakundeak artean gutxieneko sendotasuna ez zeukanean. Edozelan ere, eskaria behin onartuta, geratzen zen bakarra zen lana ahalik eta txukunen egitea. Eta horixe egiten ahalegindu nintzen.

- 3) Ikasle Kontseilu Nagusitik, Konpentsazio Epaimahaiei buruzko iritsitako beste kasu bat. Eskariaren ondorioz, Erabaki bat etorri zen, zeinean prozesu horietan gertatu ohi diren akatsak aztertu baitziren, eta gomendioak egin genituen maila desberdinetan akats horiek zuzentzeko.
- 4) Beste kasu bat, doktoratu aurreko MECeko bi bekadunek aurkeztua. Eskarian kexu ziren ordainsariatetan diskriminatuta zeudelako, kategoria profesional eta arduraldi berean ari ziren beste bekadun batzuen aldean, oinarri hartuta unibertsitate honetako lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboan jasotakoa. Sindikatuei beren iritzia eskatu ondoren, Erabaki bat prestatu genuen hitzarmen horretako 32.4 artikulua aldatzeko proposamena eginez.

- 5) Prezio publikoei buruzko beste bat, psikologiako irakasle batek aurkeztua. Hain zuzen, Psikologia Aplikatuko Zerbitzuan (SPA/PAZ) lanean ari den aldetik, irakasleak eskaria egin zuen kasu berezietan prezio publikoak itzultzeko arautegi bat zehazteko, adibidez gaixotasun fisiko eta buruko gaixotasun larria duten ikasleen kasuetan. Beste unibertsitate batzuetako eta UPV/EHUko bertako araudiak aztertu ondoren, Erabaki bat prestatu genuen, eta zenbait aholku eman genituen araudia hobetzeko. Erabaki hori, zenbait arazoren ondorioz, atzeratu egin da guk gura baino gehiago, eta urtarrilera arte ez da bideratu.
- 6) Azkenik, jazarpeneko zenbait kasu aipatu behar dira: batzuk berriak, puntualak baina gogorak; beste batzuk, iraganekoak; zenbait dudakoak; beste batzuk konponbide zailekoak. Guztira, kasu hauek neke psikologikoa handia ekarri dute, eta horiek izan dira, zalantzarik gabe, nire lanaren parterik gogorrena. Kasuak aztertzean, aukera izan dut jazarpenaren inguruko protokoloak gaur egun dituen arazoez jabetzeko; bereziki, protokolo horren arabera Aldezleak daukan zereginaren ingurukoez. Hori guztia lagungarri izan dut protokoloa eguneratzeko premiaz hausnarketa egiteko.

3.- Beste jarduera batzuk

Martxoaren 1eko Klaustroan jarduera-plana aurkeztean azaldu nuenez, erakundea martxan jartzeko lehenengo fase horretan neukan lehentasuna zen, helduaz zihoazen eskariei ahalik eta ondoen aurre egitea. Horiez gain, baina, beste jarduera batzuk ere egin ditugu.

Aholku Batzordea eratzea eta abian jartzea

Martxoaren 1eko Klaustroan adierazi bezala, izendatu ondoren egin nuen lehenengo gauzetako bat izan zen Aholku Batzorde bat eratzea: bederatzi kidez osatuta dago, hiru kide campus bakoitzeko, batzordean irakasleak, ikasleak eta AZPkoak egonik.

Batzordeak lau bilera egin ditu, hiru campusetan txandaka bildurik. Bilera horietan nire ardurarik handienei buruz hitz egiteko aukera izan dut, eta hori oso garrantzitsua izan da niretzat, batez ere hasieran, bakar-bakarrik bainengoen arazo oso zailei aurre egiteko. Horrez gain, testu eta erabaki oinarrikoen gaineko eztabaida egin dugu, eta hori ere oso lagungarria izan da.

Beste defendatzaile unibertsitarioekin eginiko bilerak eta ekimen bateratuak

Urtarrilaren 10ean izena eman nuen Unibertsitateetako Defendatzaile Unibertsitarioen Estatuko Konfederazioan. Geroztik, harreman sendoa izan dut zenbait unibertsitateetako defendatzaileekin, batez ere G9 taldekoekin.

Urte honetan, hiru bileratan hartu dut parte eta unibertsitateko defendatzaileek izan dituzten arazorik ohikoenez hitz egiteko aukera izan dut:

- 1) Otsailaren 8an eta 9an G9ko defendatzaileek Madrilen egindako bileran egon nintzen.
- 2) Maiatzaren 10ean eta 11n, talde horrek Palman egindako bileran izan nintzen.
- 3) Irailaren 10-21ean defendatzaileek Almerian egindako XV. topaketan hartu nuen parte.

Unibertsitateko defendatzaileen sare horren bidez hainbat ekimenetan hartu dut parte:

- 1) Martxoaren 1ean, unibertsitateetako defendatzaileek murrizketen kontra egindako protesta sinatu nuen.
- 2) Apirilaren 13an, babesak eman nion konfederazioak Complutentseko defendatzailearen, Rosa M. Galán Sánchez andrearen, ekimenez egindako eskariari, horren bidez ministerioari eskaria egiteko masterrak egiteko laguntzen deialdia bertan behera utz zezan.
- 3) Azkenik, apirilaren 30ean, bat egin nuen unibertsitateetako defendatzaileek Gobernuaren Lege-Dekretuaren kontra ateratako komunikatuarekin.

Jazarpenaren arloko prebentziorako eta kexak ebazteko akordioaren funtzionamendua aztertzea, eta Batzorde Arbitrala martxan jartzea

Martxoaren 1eko Klaustroan ordura arte egindako jardueren berri ematean adierazi nuen ezen sindikatuen ordezkariekin elkarriketak izan nituela, eta guztiek adierazi zutela egoki izango litzatekeela aldezearen erakundeak deia egitea jazarpenaren arloko akordioa berraztertzeko, eta egin beharreko aldaketei buruzko hausnarketa egiteko. Apirilaren 18an, Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordeari, Amaia Maseda andreari, esan nion ezen nire ustez egokia izango litzatekeela prozesu horri ahalik eta arinen ekitea eta, agian, aukera ona izango litzatekeela gai hori Campus arteko Batzordearen hurrengo bileran aztertzea.

Batzordeak ekainaren 29an egin zuen bilera, eta errektoreordeak gaia aurkeztu eta akordioa berriz aztertzeko komenentzia azaldu zuen. Hala ere, sindikaturik gehienek adierazi zuten horren kontra egon ez arren, lehenengo eta behin akordioa bete egin behar zela eta Batzorde Arbitrala abian jarri behar zela, oso aspaldiko eskariari jarraituz. Bileran, errektoreordeak eskaria egin zion aldeleari oporren bueltan idatzi bat aurkezteko, bertan akordioari buruzko iritzia azaltzeko.

Idatzian adierazi nuen ezen, egungo akordioari buruzko eztabaidan hasi baino lehen, indarreko akordioa aplikatu beharra zegoela eta bete gabe zeuden atalak bete behar zirela. Nire gomendioari esker, edo beste arrazoi batzuk bitarteko, urriaren 17an batzordeak egindako bileran, errektoreordeak Batzorde Arbitrala martxan jartzeko borondatea adierazi zuen. Ordezkari gehienek aldeko iritzia adierazi zuten, eta urtarrilerako martxan jartzea adostu zen.

Bilera horretan akordioari buruzko hiru txosten aurkeztu ziren: nik neuk prestatutakoa, errektoreordeak OSALANi eskatutakoa eta UPV/EHUko Lege Zerbitzuak prestatutakoa. Nire txostenak eta Lege Zerbitzuak egindakoak agerian utzi zuten akordioak zenbait arazo dituela, batez ere aldezleak jazarpenaren arloko kexak tramitatzeko daukan eginkizunaren arloan. Agerian geratu zen gogoeta sakona egin behar zela arlo horretan. Zorionez, Batzorde Arbitrala martxan jartzeak erraztu egingo du prozesu hori.

Ikasleen ordezkariekin eginiko bilerak

Gipuzkoako eta Kontseilu Nagusiko ikasleekin zenbait bilera informal izan ondoren, ekainaren amaiera aldera deia egin nien hiru campusetako ikasle-kontseiluetako ordezkariak eta Kontseilu Nagusikoek beren kezka nagusien gainean hitz egiteko eta harremanetarako zubiak ezartzeko. Bi-hiru hilabeterik behin bilera bat egitea adostu genuen, eta, horrela, abenduan berriz bildu ginen.

Erakundearen webgunea argitaratzea eta zerbitzuari buruzko informazio zabalagoa eskaintzea

Klaustroak aldezle aukeratu bezain laster, nire lehenengo zereginetako bat webgunea argitaratzea izango zela pentsatu nuen. Hala ere, zenbait gorabehera tarteko, atzeratuz joan nintzen, eta, eskari kopurua kontuan izanda, eta, batez ere, jendaurrean agertzen nintzen bakoitzean (prentsan, Klaustroan bertan, *Campus*a aldizkarian...) gero eta eskari gehiago irizten zirela kontuan izanda, webgunea atzeratzea erabaki nuen, lantaldea osatu eta nire lana apur bat antolatu arte. Izan ere, beldur nintzen kasuak pilatzen hasiko zirela eta zerbitzua gainezka egongo zela gutxieneko ibilbidea egin aurretik. Gainera, laster konturatu nintzen nire premia zeukanak ez zeukala arazorik nirekin harremanetan jartzeko (are gehiago, batzuek zuzenean jotzen zutela nigana beste instantzia batzuk baster utzita).

Azkenik, udako oporren bueltan, webgunea prestatu genuen. Hala ere, gero azaldutako arazo teknikoren bat tarteko (eskari-orriak eta abar), prozesuak uste baino luzeago jo du. Edozelan ere, urritik aurrera abian da webgunea, normaltasunez.

Erakundearen gaineko informazioari eman zaion zabalkundea dela eta, aipatzekoa da ikasleei matrikula egitean ematen zaien karpetan ere gehitu dela guri buruzko informazioa.

Bestalde, izendapena egin eta gutxira, zenbait elkarrizketa izan nituen komunikabideetan. Artikulu txiki bat ere idatzi nuen erakundearen berri emateko *Campus*a aldizkarian. Horretaz aparte, ez dugu zerbitzuaren propaganda handirik egin, eta oso gutxitan agertu naiz jendaurrean, hein handi batean lan handiaren ondorioz, zeren urte honetan buru-belarri aritu baikara zerbitzua martxan jarri eta kasu guztiak bideratzen.

Badakit etorkizunean erakundearen ikusgarritasuna landu beharko dudala. Epe laburrean, nire asmoa da beste artikulu bat idaztea *Campus*a aldizkarirako, urte honetako balantzearen berri emateko. Eta datorren urtean, publizitate handiagoa emango diot erakundeari, ikastegietako monitoreen bidez, iragarki orrien bidez...

Erakundearen Arautegiaren prestakuntza

Martxoaren 1eko Klaustroan azaldu bezala, hauxe zen urte honetarako geneukan egitekorik garrantzitsuenetako bat. Hala ere, ez genuen hasi nahi ataza honetan, gutxieneko esperientzia izan arte. Beraz, udako oporren bueltara arte, ez ginen horretan hasi. Dena den, arautegia osatuta dago, eta 2012ko azaroaren 12an bidali genuen Idazkaritza Nagusira, Lege Zerbitzuek gainbegiratzeko.

Prestakuntza

Aldezle-lanak zenbait erronka ekarri dizkit. Horietako bat, eta ez makala, izan da arazo oso larriak aztertzea eta horiei buruzko aholkuak ematea, egoera hobetzeko. 2012ko azaroaren 8 eta 9an Gasteizko Gizarte Langintza Eskolan biltzarra egin zen *Gizartea eraldatzeko gatazketan bitartekaritza eta partehartzea* izenburupean, eta gaian sakontzen hasteko aukera ona iruditu zitzaidanez, parte hartu nuen, interes handiarekin hartu ere.

Nolanahi dela, biltzarra oso interesgarria izan zen arren, saio gutxitan landu ziren nire intereseko gaiak. Horrela, bada, pentsatu nuen egokia izango zela, gure taldeko kideentzat gure erakundean nagusi ziren gaiak lantzeko berariazko ikastaro bat antolatzea, epe laburrean, gai horietako adituekin. Noski, aukera egongo zen ikastaroa gure unibertsitateko beste kide batzuei ere eskaintzeko, arrisku psikosozialen arloan lanean ari direnei, hain zuzen ere.

4.- Unibertsitateko kideen eta Erakundearen arteko lankidetzak

Gure lana egiteko, gure unibertsitateko kide eta instantzia askoren laguntza izan dugu.

Oro har, gure erakundearenganako errespetu handia erakutsi du jendeak, eta laguntzeko prest agertu da. Nabarmentzekoa izan da Prebentzio Zerbitzuaren buruarekin, Iñigo Apellaniz jaunarekin, eta Irakasleen zuzendariarekin, Carmen Ikaran andrearekin, izandako lankidetzak sendoa, elkarrekin landu behar izan baititugu zenbait arazo. Baina beste batzuek ere laguntza handia eman digute, besteak beste: Arabako Campuseko erretoreordeak, Eugenio Ruiz Urrestarazu jaunak, Etika Batzordeko zuzendariak, M^{re} Isabel Marijuán andreak, Berdintasuneko zuzendariak, Jasone Astola andreak, Pertsonaleko gerenteordeak, Iñigo Díaz jaunak, eta Lege Zerbitzuko teknikariek eta zerbitzu nagusietako eta ikastegietako hainbat kidek.

Aukera honetaz baliatu nahi dut guztiei eskerrak emateko, beren laguntzarik gabe ezin izango baikenuen gure lana bete.

Izan da salbuespenik. Hala, akademia arloko agintari bati hainbat aldiz eskatu diogu arazo ez bereziki zail bati buruzko erantzuna (lau aldiz idatzi bidez, eta bi, ahoz), baina oraindik zain gaude, ez du ezelango erantzunik eman.

Baikorra naiz eta seguru nago erakundea indartu ahala eta ezagutzera eman ahala, unibertsitateko kideek erakundeari laguntza ematea ezinbesteko eginbehartzat hartuko dutela eta, are gehiago, uste dut ohoretzat hartuko dutela gauzak hobetzeko xedez laguntza emateko aukera hori izatea.

5.- Konpondu beharreko zenbait arazo

Aukera honetaz baliatu nahi dut, halaber, urte honetan antzemandako zenbait arazo adierazteko, arretaz aztertu beharra dagoela uste dut eta.

Unibertsitateko agintarien erantzunik eza

Erakundeari eskaria egin dion askok alde zurreratik errekurtsoa jarrita zeukan, baina epe nahiko luzea igarota egon arren, erantzunik hartu gabe zegoen. Kexa hori behin eta berriro entzun dugu, eta ez dira partikularrak izan adierazpen hori egin diguten bakarrak; izan ere, zenbait organo eta ikastegietako arduradunek ere adierazi digute kexa hori. Are gehiago, Arartekoaren idatziren batean ere ikusi dugu arazo hori jasota; zeren, Aldezlearen erakundea sortu zurreratik, Arartekoa aritu izan baita horietako zenbait gairekin.

Begi-bistakoa denez, denetarik dago. Batzuek berehala ematen dute erantzuna azalpen zehatzekin, baina beste batzuek, ordea, paso egiten dutela dirudi. Baina, edozelan ere, ezin dugu egoera hori onartu. Hori ez da bidezko jarrera erakunde serio batean, batez ere gure unibertsitateak urte honetan bertan “Euskal Herriko Unibertsitateko Kideentzako Printzipioen Adierazpena” onartu berri daukala kontuan hartuta.

Mota horretako jarrerak ezintasun-sentimendua sortzen dute, eta distantziamendua, edo, okerrago dena, sumindura, eta, sarritan, amorru hori ez da egoera hori eragin duenarenganako bakarrik, ezpada, hedaduraz, UPV/EHU osoarenganako. Gainera, horrela, hasieratik helduz gero nahiko konponerraza izan daitekeen arazoa, denboraren poderioz, gero eta zailagoa bihurtzen da, eta gaiztotuz joaten da. Bestalde, egoera horren ondorioz, mota horretako azaro guztiak gurera heltzen dira, eta hori ere kontuan hartzekoa da. Erakunde hau, bai, unibertsitate honetako kideen eskubideak babesteko dago, eta administrazioak beren kontra bidegabeko edo zalantzako jarrerarik izanez gero babesa emateko, baina erakunde hau ezin da izan hondar guztiak biltzeko gunea, ezin da inork konpondu nahi ez dituen gaiei aurre egiteko zerbitzu bihurtu.

Organo bakoitzak eta arduradun bakoitzak bere erantzukizunei egin beharko die aurre. Hala ere, gerta daiteke zerbaitek huts egitea, eta, orduan bai, aparteko egoera horietan, Aldezleak hartu beharko du parte. Horrela jokatu ezean, eta arazo guztiak Aldezlearen esku utziz gero, arriskua egon daiteke sortu berri den erakunde hau suntsitzeko, jakin badakigun arren, neurritz jokotuta oso zerbitzu ona eman diezaiokeela unibertsitateari.

Argi utzi nahi dut arazo hori. Bakoitzak bereari egin behar dio aurre. Guztiok bete behar dugu geure lana ahalik eta arduratsuen: besteenganako errespetua erakutsi behar dugu, eta zerbaitek eskatzen digutenean, *beti* eman beharko dugu erantzunen bat, *atzerapenik gabe*, ahalik eta lasterren erantzun bat emango dugula esateko besterik ez bada ere.

Unibertsitateko agintarien erabakimenik eza

Zenbait kasutan, unibertsitateko agintarien erabakimenik eza sumatu dut. Arazo hau aurrekoa baino nahasiagoa da, eta, beraz, konponbidea ere zailagoa izango da. Halakoetan ez da erraza izaten jakitea noiz den ebatzen falta eta noiz zurrerzia, eta azken hori oso

beharrezkoa izaten da unibertsitateko arduradunek sarri askotan esku artean izaten dituzten arazo eta gorabeherak konpontzerakoan.

Edozelan ere, uste dut nire eginbeharra dela iritzia ematea, eta uste dut urte honetan ikusi ditudan zenbait arazotan (Estomatologia, Medikuntza Prebentiboko praktikak...), baina ez bakarrik horietan, beste arazo asko saihestu izango liratekeela, bere garaian agintariak beste jarrera bat izan balute.

Zehapenak jartzeko uzkur agertzea

Azkenik, egokia iruditzen zait aipatzea batzuetan arduradunak uzkur agertzen direla kritika egin behar denean, edo datuak oinarri hartuta zehapena jarri beharra dagoela ikusten denean. Oraingoan ere, nekeza da jakitea beste pertsonak edo instantziak izango duen jarreraren beldurrez jokatzeko den horrela, edo zuhurtzia den, baina uste dut beldurrik badela horrelakoetan.

Aldezle-lanak erakutsi dit horrelako gaietan zuhur jokatu behar dela, eta hobe dela urri ibiltzea gehiegikeriaz jokatea baino. Hala ere, une honetan, unibertsitatean, bai eta kalean ere, jendea nazkatuta dago jarrera onartezinak ezelango zigorrik gabe uzteaz, adibidez, jazarpena eta iruzurra. Eta, zer esanik ez, zigorgabetasunak ez dakarkio onik gizarteari, alegia, biktimak erresumindu egiten ditu, eta oso mezu arriskutsua bidaltzen dio gizarteari: “nahi duzun guztia egin, ezer ez zaizu gertatuko eta”.

Ez dut adierazi nahi, baina, berehalako zigorra ezarri behar denik edozein hutsegite antzematean. Argi dago sarri askotan onena hitz egitea dela, eta berriro ere jarrera hori ez izateko konpromisoa hartzea. Nire helburua da, hortaz, gogoetarako bide ematea, zeren jokamolde horrek aurten ere arazo bat baino gehiago ekarri baitizkio unibertsitateari, eta agintariak oso jarrera argia erakutsi beharko bailukete horren inguruan.

6.- Txosten ekonomikoa

Hasiera batean, 60.000 euroko aurrekontua agindu zioten zerbitzu honi. Urtarrilaren hasieran, erdira murriztu zuten kopuru hori, 30.000 eurora, promesa eginda ezen aurrekontua handiagotu egingo zutela teknikari legelariaren plaza betetzeko prozesua asko luzatu eta kanpoko abokatu baten zerbitzuak kontratatu beharra izanez gero.

Ez da horren premiarik izan, eta kopuru hori nahikoa eta sobera izan da aurtengo gastuetarako. Ondoko taulan jasota dago zein gastu egin den eta zein zen gastuen egoera 2012ko abenduaren 31n (egun horretan ixten da ekitaldi ekonomikoa).

2012. urteko aurrekontua	30.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak eta koadernazioak	3.337,50 €
Unibertsitateko defendatzaileen estatuko konfederazioan izena ematea eta kuota ordaintzea	525,00 €
Estatuko defendatzaileen topaketan izena ematea eta biltzarreko gastua	180,00 €
Joan-etorriak eta dietak	4.381,03 €
Beste gastu batzuk	280,85 €
Guztira	8.704,38 €
Saldoa	21.295,62 €

ERANSKINA

Bideratutako aztergaiak

Kodea			
Taldea	Aztergai mota		
Ik.: Ikasleak	Kx: Kexa		
Irak. eta Iker.: Irakasleak eta ikertzaileak	G: Galdera		
AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza		
	J: Jazarpena		
Zk.	Taldea	Aztergai mota	Gaia
1	AZP	Kx	Lanpostua ukatzea legez hala egokitu arren.
2	Ik.	Kx	Masterreko lana ezesteko arrazoirik eman ez.
3	AZP	Kx	Kontratua luzatzeko jakinarazpena hiru egun lehenago baino ez egitea.
4	Irak. eta iker.	B	Sailean arazoak.
5	Irak. eta iker.	B	Sailean arazoak.
6	Irak. eta iker.	J	Saileko kide baten aldetik ustezko jazarpena.
7	Ik.	Kx	Masterrean ez onartzeko arrazoirik ez; jarrera xenofoboa, eta errektoreari jarritako erreklamazioari erantzunik ez.
8	Beste batzuk	Kx	Eusko Jaurlaritzak onartu ez prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzako beka (ez da Aldezlearen eskumena).
9	Beste batzuk	Kx	Laguntza ukatzea prestakuntza bideko ikertzaileari.
10	Beste batzuk	Kx	Lehiaketa eta Deialdien arloak deialdiak eta erabakiak ez argitaratu izana.
11	Beste batzuk	Kx	Plaza ukatzea ezelango arrazoi gabe.
12	Irak. eta iker.	Kx	Irakasgai bateko irakats lana eskubide gutxiago zeukan beste pertsona bati ematea kontseiluan, bozketarik egin gabe.
13	Irak. eta iker.	Kx	Irakasgai berri baten irakats lana esleitu izana, kontseiluan bozketari egin gabe.
14	Irak. eta iker.	Kx	Sailerako idazkaririk ez esleitzea aurrekoaren kontratua zenbait aste lehenago bukatuta egon arren.
15	Ik.	G	Azterketa egiteko aukera, nahiz eta berandu heldu eta

			deialdirik gastatu ez.
16	Ik.	Kx	Tesina bat aurreiritziz ebaluatua, eta beste epaimahai batek berriz ebaluatzeako eskaera.
17	Ik.	Kx	Zenbait kexa irakasle-ikasle harremanei dagokienez, batez ere ikasle nagusien kasuan.
18	AZP	Kx	Ikertu programa ukatu izana AZPkoa izateagatik.
19	Irak. eta iker.	Kx	Dekanordearen irakats lanerako ordezkorik ez.
20	Irak. eta iker.	Kx	Bere ikastegiko AZPko bat, bere taldean ikasle.
21	Irak. eta iker.	B	Sailean zenbait arazo.
22	Irak. eta iker.	Kx	Saila eta Errektoregoaren arteko komunikazio arazoak, praktikak esleitzeko prozesua dela eta.
23	Ik.	Kx	Konpentsazio Epaimahaiaren bidez irakasgaia gaintitzea ukatu izana, eta, beraz, lanean hasteko atea itxi.
24	Irak. eta iker.	B	Sailean zenbait arazo.
25	Irak. eta iker.	Kx	UPV/EHUn irakasle lanetan emandako lehenengo urteak aintzat ez hartzea jubilaziorako.
26	Irak. eta iker.	B	Taldean egindako lan baten autoretzari buruzko arazoak.
27	Irak. eta iker.	G	Ikasle batek irakasleari egindako jazarpena.
28	Beste batzuk	Kx	Euskararen ezagutza gehiegi baloratzea irakasle elkartua kontratatzeke.
29	AZP	J	Ustezko jazarpena, lankide baten aldetik.
30	AZP	G	AZPkoen promozio profesionalari buruzko kexa aurkezteko prozedura.
31	Ik.	Kx	4. mailan beste unibertsitate batean sartzea ukatzea, hori egiteko aukera bere ikastegiak hurrengo mailan baino ez duelako ematen.
32	Ik.	Kx	Haur Hezkuntzako Diplomaturatik Lehen Hezkuntzako Graduan sartzeko arazoak.
33	Irak. eta iker.	J	Zuzendariak eta saileko beste kide batzuek ustez egindako jazarpena.
34	Irak. eta iker.	G	Lizentziatura ezin lortu irakasgai baterako matrikula egin ez izanagatik.
35	Ik.	Kx	Ikastegiko irakasle, kide eta zuzendaritzaren kontrako kexak, bai eta Ikasleen Errektoreordearen kontrakoak ere.
36	Ik.	Kx	Zenbait kexa, anonimoak eta oso desatseginak, ordenagailuen gelaren funtzionamendua dela eta.
37	AZP	Kx	Merezimenduen balorazioa unibertsitateko lan-kontratu finkodun langileen barne-promozioko prozesu batean.
38	Ik.	Kx	Ikasle baten espedientea.

39	Irak. eta iker.	Kx	Amatasuna eta esleitutako irakasgai bat emateko lana bateragarri egiteko arazoak, ordutegia dela eta.
40	Irak. eta iker.	Kx	Ikerketa-proiektu batean zuzendari legez ezin agertu irakasle elkartua izateagatik.
41	Ik.	Kx	Plan zaharreko 1. maila bukatu eta plan berrira aldatu behar izana irakasgairen bat gainditu ez dutenek.
42	AZP	Kx	Plaza hutsa ez esleitzea.
43	Irak. eta iker.	Kx	Doktorego aurreko bekadunak diskriminatuta egotea ordainsarrietan (UPV/EHUn ari diren ministerioko bekadunak).
44	Irak. eta iker.	Kx	Doktorego aurreko bekadunak diskriminatuta egotea ordainsarrietan (UPV/EHUn ari diren ministerioko bekadunak).
45	Ik.	Kx	Konpentsazio Epaimahaiaren erabakia epez kanpo argitaratzea, eta, ondorioz, errekurtsioa ezin behar bezala jartzea.
46	Ik.	Kx	Azterketak hasteko hilabete bat besterik geratzen ez denean, datak argitaratu gabe egotea.
47	Irak. eta iker.	Kx	Ordaindutako prezio publikoak itzultzea aparteko arrazoiengatik ezin denean ikasten jarraitu.
48	Irak. eta iker.	J	Ikastegiko zuzendariaren ustezko jazarpena.
49	Ik.	Kx	Tesiko proiekturako zuzendaria lortzeko arazoak.
50	Irak. eta iker.	Kx	Ordezko irakaslearen ustez, ikastegian ez dute onartzen "etxekoa" ez izateagatik.
51	Irak. eta iker.	Kx	Gehiegizko irakats lana.
52	Beste batzuk	Kx	Ikertzaileen kontratuetarako lehiaketan, arazoak onartuen eta baztertuen zerrendekin.
53	Irak. eta iker.	J	Ustezko jazarpena, lankideen aldetik.
54	Ik.	Kx	Konpentsazio Epaimahaiaren erabakian arrazoirik ez ematea.
55	Ik.	Kx	Modu ez formalean, baina isilpean, emandako informazioa erabili izana.
56	IK.	Kx	Masterreko matrikulan eta titulua lortzeko tasetan beherapenik ez, Graduak azken mailan lortutako ohorezko matrikulengatik.
57	Ik.	G	Graziako bigarren deialdia izateko aukera ziklo berean.
58	Irak. eta iker.	Kx	Irakasgai bateko irakaslanagatik krediturik ez aitortzea.
59	Ik.	Kx	Ezohiko azterketa egiteko arazoak izatea, matrikula berandu ordaindu izanagatik.
60	Irak. eta iker.	Kx	Ikastegiko zuzendaritzako zenbait kidek errespetu gabe tratatu izana.

61	Irak. eta iker.	J	Ustezko jazarpena, saileko zuzendariaren aldetik.
62	Beste batzuk	Kx	Plaza baten akta argitaratu ez izana eta beste gai batzuk.
63	Ik.	Kx	Gradu baten izena ez aitortzea.
64	Ik.	Kx	Aparteko deialdiko ikasleak kanpo uztea gradura pasatzeko bitarteko ikasturterako ikasleak aukeratzeko prozesuan.
65	Irak. eta iker.	Kx	Irakasgai bateko irakats lanaren esleipena eta jarritako erreklamazioari erantzun ez egokia eman izana.
66	Ik.	G	Tesiko zuzendariak behar bezala tratatu ez izanaren sentimendua.
67	Ik.	G	Plan zaharreko ikasle bat ustez diskriminatu izana Kontentsazio Epaimahairako beste deialdi bat ematerakoan.
68	Ik.	Kx	Gradu amaierako laneko epaimahaiak berandu eman data eta horregatik deialdia galdu izana.
69	AZP	Kx	Beste lanpostu batera aldatzea horretarako dagoen prozedura bete gabe.
70	AZP	Kx	Berandu argitaratzea Gobernu Kontseiluaren bilerarako aztergaiei buruzko dokumentazioa eta arazoak proposamen baten oinarri den txosten juridikoa lortzeko.
71	Ik.	Kx	Gestio araudia ez betetzea azterketa bat zuzentzean eta gainbegiratzean.
72	Ik.	Kx	Mastererako hautaketa irizpideak.
73	Beste batzuk	Kx	Bi plazen epaimahaia errefusatzeari erantzunik ez.
74	Beste batzuk	Kx	Errektoregoak aldezlearen eskaria ez onartzea.
75	Beste batzuk	Kx	Errektoreari jarritako errekursoari erantzunik ez.
76	Ik.	Kx	Istripua izatearen ondorioz irakasgai biko matrikula baliogabetu eta prezio publikoak itzultzeko eskariari erantzunik ez.
77	Ik.	G	Familiako kide baten ezintasunagatik tasak murriztuta matrikula egiteko arazoak.
78	Beste batzuk	Kx	Plaza bateko espedienteko dokumentazioa lortzeko eskaria errektoregoari.
79	Ik.	Kx	Ebaluazio bereziari buruzko errekurtsua berandu erantzun eta horrek ondorio negatiboak ekarri.
80	Irak. eta iker.	Kx	Kredituak onartzeko eskariari erantzunik ez.
81	Ik.	Kx	Graziako deialdirako eskaria epez kanpo egin eta erantzunik eman ez.
82	Irak. eta iker.	Kx	2012/13 ikasturteko irakats betebeharrak argitaratzeko epea ez betetzea.

83	Irak. eta iker.	G	Ikastegi bateko bulegoko buruarekin arazoak ez duelako behar bezala kontrolatzen idazkaritzan egiten den lana.
84	AZP	Kx	Gobernu Kontseilurako dokumentazioa argitaratzeko epeak ez betetzea.
85	Irak. eta iker.	G	“Euskotramoak” lehenengo aldiz eskatzeko aukera.
86	Irak. eta iker.	J	Sail bateko irakasleei usteko jazarpena.
87	Beste batzuk	Kx	OSAKIDETZAko oposizioetan master amaierako lanagatik punturik ez ematea ikertzeko gaitasunagatik eman egiten diren arren.
88	Irak. eta iker.	Kx	Irakasle elkartuen zenbait plaza dela eta jarritako erreklamazioa erantzunik gabe.
89	Irak. eta iker.	Kx	Irakats lana beste campus batean betetzeagatik ematen diren dieta eta bidaia gastuei buruzko arautegian zenbait gai eztabaidagarri.
90	Beste batzuk	Kx	Zabalduz beka ukatzearen kontra jarritako errekurtsuari buruz informazioa eskatu eta erantzunik ez.
91	Irak. eta iker.	G	Irakasleen errektoreordearen erabakia, irakasle eta ikertzaileen ordezkioak luzatzeko arautegiari buruzkoa.
92	Irak. eta iker.	Kx	Irakasle eta ikertzaileen ordezkioak egiteko zerrendetan merezimenduak eguneratzeko aukerarik ez.
93	Ik.	Kx	Matrikula arazoak bi karrera aldi berean egiteko.
94	Irak. eta iker.	Kx	Ikasleak deskalifikazio iraingarria irakasleari.
95	Ik.	Kx	Konpentsazio Epaimahaian irakasgai bat ez gainditzea.
96	Irak. eta iker.	G	Ikerketa taldeko kide baten usteko jazarpena.
97	AZP	G	Ikastegiko administratzaileen maila dela-eta egindako azken ebaluazioa.
